

106E/2024 EBAZPENA, abenduaren 5koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko 2024ko laguntzak ordaintzea ebazten duena.

ERREFERENTZIA: **Espediente kodea: 0011-4410-2024-000000**

KUDEAKETA UNITATEA: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskara
Tel.: 848 423224
Helbidea: Paulino Caballero, 13, 31002 Iruña
Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es

ESPEDIENTEA

Espediente mota: Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko 2024ko laguntzak

Apirilaren 25eko 53E/2024 Foru Aginduaren bidez, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariak irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera eta presentzia sustatzen dituzten hizkuntza planak eta ekintza solteak prestatu/ezartzeko eta eduki digitalak egokitzeko 2024ko laguntzak onetsi zituen.

Ondoren, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako abuztuaren 9ko 64E/2024 Ebazpenaren bidez, laguntzen deialdia ebatzi zen.

Zerbitzu kudeatzaileak egiaztatu du dirulaguntzaren helburuak bete direla, dirulaguntza jasotzeko eskubidea ematen duten baldintzak bete direla eta aurkeztutako agiriak baliozkoak direla.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena aurkeztu du aipatutako laguntzak emateko.



Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onetsi zituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, eta azaroaren 9ko Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen arabera,

EBATZI DUT:

1. Ondoko laguntzak ordaintzea taula honetan jasotako toki entitate onuradunei:

Espediente zenbakia	IFZ	Izena	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa
0011-4410-2024-000001	G71149397	FUNDACION ADITECH	G/B30002-B3200-7819-334103	3.851,24
0011-4410-2024-000002	G31715899	FUNDACION CLUB ATLETICO OSASUNA	G/ B30002-B3200-4819-334113	64.981,40
0011-4410-2024-000003	G31959513	ASOCIACION ALLOTARRA DE AGRICULTURA Y GANADERIA ECOLOGICA	G/ B30002-B3200-4819-334113	6.890,00
0011-4410-2024-000005	G83496000	FUNDACION KOINEAEQUALITAS PARA LA CALIDAD Y DESARROLLO SOCIAL	G/ B30002-B3200-4819-334113	4.870,00
0011-4410-2024-000006	G31591217	FEDERACION DE ASOCIACIONES DE PADRES Y MADRES DE ALUMNOS SORTZEN GURASOAK	G/B30002-B3200-7819-334103	6.763,16
0011-4410-2024-000007	G71404024	HAZIALDEKO	G/ B30002-B3200-4819-334113	3.695,64
0011-4410-2024-000008	G71481899	ASOCIACION TEATROLARI	G/B30002-B3200-7819-334103	1.293,14
0011-4410-2024-000009	F71434047	ZAKAN SOZIAL SOZietate KOOPERATIBOA	G/ B30002-B3200-4819-334113	7.014,89

2. Ondoko taulan agertzen diren diru-kopuruak askatzea:

Esp. Zk.	IFZ	Izena	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa
0011-4410-2024-000005	G83496000	FUNDACION KOINEAEQUALITAS PARA LA CALIDAD Y DESARROLLO SOCIAL	G/ B30002-B3200-4819-334113	130,00
0011-4410-2024-000008	G71481899	ASOCIACION TEATROLARI	G/B30002-B3200-7819-334103	92,46
0011-4410-2024-000009	F71434047	ZAKAN SOZIAL SOZietate KOOPERATIBOA	G/ B30002-B3200-4819-334113	0,62

3. Ebazpen hau jakinaraztea aurreko zerrendako eskatzaile guztiei eta igortzea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarakoan duen Kontu-hartzailatza Delegatura, aipatutako departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta haren Kontabilitate Zentrora, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Gai Administratiboak, Langileria eta Azpiegiturak Kudeatzeko Atalera, bai eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalera ere, bidezko ondorioak izan ditzan.
4. Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA
Javier Arakama Urtiaga |



CSV: **D453992CEF14E7A4**

Pág.: 3/3

EX.03.0005 Rev.: 1

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoa dela egiaztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:

<https://administracionelectronica.navarra.es/ValidarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2024-12-05 14:01:43